



GAZTEA, GEROAREN ERANTZULE

MIKEL UGALDE

Txirriinduren eguna, izadiaren astea edo euskararen hila-betea ospatzen den bezalatsu, gazteriaren urtea ospatuz ari gara. Gaurko gizarte honetan gazteak berekin duen egin-kizunaz eta betebeharrak ardura gaitezen edo, ospatzen dugun urtea. Eta, urtero gerta ohi denez, ez daude denak bat, horrelako ospakizunak direla eta bada eztabaidarrik, Zenbaiten ustez gizartea gazteriaren egoeraz ardura dadin baliagarri daiteke horrelako urtea. Besterentzat hutsaren hurrena, keak berak baino iraupen handiagorik izango ez duena. Usteak uste, eta besteak beste, gure geroaren erantzule bezala ikusten dut gaztea. Honenbestez ez dut uste egungo eginkizunari ihes egin behar dionik, geroaren geroko uste usteletan braust murgiltzen direnen antzera. Egungoaren betekizunak gerorako hobeto prestatuko du gaztea.

GAZTEA ETA GIZARTEA

Gizarteak, ordea, onartzen al du gaztea? Gazteak bai al du gizartekide izateko sarbiderik? Zenbaterainokoa da gaztearen eta gizartearen arteko lotura?

Gai honetan bakoitzak bere esperientzia du. Lehengo eta egungo gaztearena guztiz desberdina delakoan nago, desberdinak bait dira lehengo eta egungo gizarte joerak.

Gizarte kidesan nolabaiteko agiria lanak ematen zigun. Gaztetxo ginela lanean hasi baginen ere, lanak, etxera osorik eramandako lehen jornalak berebiziko indarra zuen. Gizon izateko eskubide ematen zigun. Heldutasun bereziaren agiria egungo gaztearena guztiz desberdina delakoan nago, desber-eginkizun nagusi baten ardura bere eskutan jartzen. Etxera eramandako lehen sobre hura, ondoren lagunartean edandako lehen basoerdia, gizartean edo lantegian antolatutako lehen ekintza hura... Lanak gizon egin ginduen, eta gizarteak bete betean bere baitan onartu.

Gaurko gazte honek ez du lanik, ezta itxaropen gehiegirik ere. Giza bizitzaren oinarri trinko, ardatz eragile izan den lanbidea itxita dakus. Ez dago lanik, ezta gerora izango den esperantzarik ere. Han edo hemen, egunez edo gauez, legez edo legezkano, agian, orduren batzuk sartzeko egokiera izango du. Ate joka kola luzetan galdutako ordu eta esperantzak ezabatuko zaizkio agian, egun batetarako, beharbada ez luzarorako. Garai batean, «sakeak honen beste erretoak esperantza» hotsein ohi zuen pilota partidoaren berri ematen zigunak, Gaurregun sakeak berekin du nahiko lan, eta erretoak esperantzarako ere biderik ez.

Gazteak daki, ongienik, bere egoeraren berri. Irakaskuntzaren munduan dihardutenak kezkatu daude. Gero eta zailago da gaztea motibatzea, istudiaraztea, lan pertsonal batetara bultzatzea. Urtetan istudioaren nekeak, etsamainen estuasunak jasan ondoren, etorkizunaren odei beltza baino ez du ikusten. Istudioaren eta lan munduaren desegokia, frakaso eskolarra,

gaztetandik jasan ohi duen marginalizazioa... Eta halaz ere, garaian garaiko gazteriak erantzun izan duen bezala, gure geroaren erantzukizuna gazteren eskutan dagoela sinestera, eta horren arabera jokatzera, behartuak gaude. Sinestera diot, sinestek ere lanak emango bait dizkigu.

GAZTE GARA GAZTE...

Horrelatsu abesten genuen gure gazte garaietan, eta gaurregun egungo gustoak eta musika joerak duen desberdintasuna gogoan hartuz, jakina, berdintsu. Eta ibili ibilian, hemen dugu joko nagusia. Geroa, gazte saiatu eta ardyratsuen eskutan jartzen asmatzen dugun neurrian, beteko dugu eginkizun nagusia. Gazterekin bat egiten, beroiengan sinesten, elkarrekin jokatzeko, asmatzen den neurrian, nor berak ere gaztetasunari eutsi egiten dio. Eta egia esan, gai honetan izan dugu gidaririk: Andoni, Bittor, Manu eta hainbat lagunek sinestu egin zuten gazterengan.

Sinestu egin behar zen, eta lan neketsuari ekin, Andoni Kortak jokatu zuen bezala jokatzeko. Irakurtzen ere ez zekien euskaldun gazte talde bat hartu eta euskaldun antzerki talde bat sortu zuen. Are gehiago, gazte hezketa lana burutu zuen. Hazia erein gogotik, eta ereintza fruitua jasoko zuenik jakin bazekien. Era berean, oso gogoan hartzekoa da Bittorren, Bittor Idiazabalez ari gara noski, lana eta meritoa. Euskara maite zuen, gure hizkuntzaren etorkizunaz kezkatu zegoen, ikastolaren aldeko lanetan buru belarri murgildu zen, eta jarraitzaileengan bide horretatik jarrai zezaten gurdia martxan jarri zuen.

Beste maila batetan, baina gazte ekintzetan lanari ekiteko prest ikusi izan ditugun beste zenbait «gazte»ren jarrera eta gogoia ere aipatzekoak dira. Xabier Olaskoaga eta Rafael Bereziartua, gazteen ekintzetan, eta bereziki Ereintzak antolatutakoetan, laguntzeko beti prest. Bejondeizuela!

Nor berak bere buruari uko egin eta gazteengan sinestek, etorkizuna gazteen eskutan uzten jakin izateak, on handirik egin diezaioke herriari. Gure artean seguraski ezezaguna den gizon ttipi-handi baten jokaera ez nuke aipatu gabe utzi nahi. Manu Robles Arangiz euzko langileen sindikatoaren buru izana. Merito handiko gizona. Larogetaka urte zituen berak, euskal sindikalismoari bultzakada eman nahi izan zion, eta «gazte hauengan sinesten dut» esanaz, berriro eraikitzeari ekin zion. Erabaki handi bat hartu zuen, gazteagoen karta jokatu zuen. Historiak erabaki honen meritoa aitortuko ahal dio.

Gaurregun lanik gabe, gizartean dagokion lekua ezin bereganaturik, dagoen gazte horrengan dago etorkizuna. Guk ere asmatuko ahal dugu beharrezko konfiantzaz eta uste onez jokatzeko. Gaztea da geroaren erantzule baina gure aldetik oztoporik jartzen ez diogun neurrian.